

Erreferentzia kodea: ES/NA/AACF/2/015

Izenburua: TABAKOAREN AGENTZIA NAZIONALAREN PROBINTZIAKO BURUTZA

Datak: 1987-1991

Deskribapen maila: Funtsa

Bolumena eta euskarria: 33 instalazio unitate

Sortzailea: TABAKOAREN AGENTZIA NAZIONALAREN PROBINTZIAKO BURUTZA

Erakundearen historia:

Espainia Europako Ekonomia Erkidegoan sartu zenean, tabakoaren ustiapenaren monopolio erregimena desagertu zen. Hala ere, Estatuak enpresa bat izaten jarraitu zuen, zeinak tabakoaren sektorean beste enpresa batzuekin lehian jarduten baitzuen. Hori dela eta, apirilaren 10eko 573/1987 Errege Dekretuaren bidez, Tabakoaren Agentzia Nazionala izena hartu zuen lehenagoko Tabakoa Hazteko eta Hartzitzeko Zerbitzu Nazionalak, eta kontu-hartzeko erakunde izaera hartu. Horrenbestez, laborariak edo enpresa eraldatzaileak aurkeztutako tabakoa ikuskatzeaz, erostean eta kudeatzeaz arduratzen zen, bai eta Kontseiluaren apirilaren 21eko 727/1970 (EEE) Erregelamenduan, Batzordearen abuztuaren 25eko 1726/1970 (EEE) Erregelamenduan eta horrekin bat datozen xedapenetan aurreikusitako primak eta itzulketak kudeatzeaz eta kontrolatzeaz ere. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren berrantolaketak, apirilaren 26ko 654/1991 Errege Dekretuaren bidez sartuak, oinarritzko egitura organikoa aldatu zuen eta Ministerioaren erakunde autonomo batzuk ezabatu zituen; besteak beste, Tabakoaren Agentzia Nazionala. Tabako ekoizpenaren antolamenduari buruzko eginkizunak Nekazaritza Ekoizpenen eta Merkatuaren Zuzendaritza Nagusiak hartu zituen bere gain, eta, merkatuetako kontu-hartzei buruzkoak, Nekazaritza Produktuen Zerbitzu Nazionalak.

Funtsaren antolamendua:

015.01 ADMINISTRAZIOA

- 015.01.01 Barne erregimeneko araubidea
- 015.01.02 Korrespondentzia

015.02 LANGILEAK

- 015.02.01 Ordainsariak
- 015.02.02 Aurreikuspen soziala

015.03 KONTABILITATEA

- 015.03.01 Kontabilitate arloko dokumentuak
- 015.03.02 Gastuen frogagiriak
- 015.03.03 Kontabilitate orriak
- 015.03.04 Bankuko frogagiriak

015.04 ZERBITZUAK

015.04.01 Ekoizpena, biltegitratzea eta eraldaketa

Sarrera baldintzak:

Sarbide mugatua. Ebaluazio Batzordeak dokumentazioa murrizteko epea ezartzen ez duen bitartean, dokumentuak eskuratzeko, Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legearen 20. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.